

Maiatzak 3: Euskararen eguna

Maiatzaren 3a Euskararen Eguna bezala aukeratu eta izendatu du Euskarazko Kulturaren Batzarreak (E.K.B.) Euskal Herriko herri guztietan, eta bai Lezon ere.

Zer da E.K.B.?

E.K.B. kultur erakunde zabal bat da, 1983an Bergaran sortua, euskararen eta euskal kulturaren defentsarako, berreskurapenerako eta eragintzarako. Hau lortzeko, euskal kulturako alor guztietan lanean diharduten talde eta elkarte herritarrek koordinatu nahi ditu, inolako talde politiko nahiz soziali lotu gabe. Helburu horren ingurura biltzen dira beste hauk:

a) Gizartearen jaberazpena: Euskarak, Euskal Herriaren hizkuntza nazional bezala, duen esanahiari eta balioari buruz, gizartearen kontzientzia sortu, indartu eta hedatu; eta era berean, horren egoera larria salatu eta euskal herritar bakoitzaren eta guztion eginkizuna nabarmendu.

b) Plangintza orokorra: Euskal Herriko erakunde publiko eta ofizialei eskatu eta eskaini, euskararen eta euskal kulturaren normalkuntzarako plangintza orokorra lantzean eta finkatzean, indar herritarrek eskuhartzea; eta horretarako lanak bideratu eta bateratu.

c) Ekintza bateratua: Euskal Kulturako sail eta elkarte oinarrikoen hainbat kultur ekintza bultzatu eta lagundu, eta Euskal Kulturaren Batzarreak berak antolatutako ekintza bateratuak aurrera eramane, elkarte eta kulturazko sail guztien indarrak bilduz.

d) Eskakizunak: Euskararen eta euskal kulturaren alde erakunde ofizialen eta indar sozialen aurrean eskakizunak eta erantzukizunak ipini eta bultzatu; eta era berean, kultur elkarte herritarren eta euskal kultur sail ezberdinen interesak aldeztu. (1)

Euskararen egoera Lezon

Gure herrira itzuliz begirada bat eman diezaiogun euskararen bilakaerari edo eboluzioari eta egoerari.

1.970. urtean populazioaren 2/3 euskaraz mintzatzen zen, hau da populazioaren % 61,6. Nahiz eta inmigrazioak arrakasta handia izan,

nahiko ongi gorde da euskara lezon auzoko herrien aldean.

1.981eko urtean, euskararen egoera ez da asko aldatzen. Nahiz eta biztanleria haunditu eta inmigrazio bortitza jaso, ikastolek, gaueskolek eta herriko ikastetxeek oso lan handia egin dute euskararen egoera hobetzeko.

Hala ere, euskaraz hitzegiten ez dutenen portzentaia nahiko handia da eta batez ere euskaraz idazten ez dakitenena.

EUSKARA MINTZATUAREN EGOERA

EZAGUERA	OSORA		GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
	ZENBAT	%	ZENBAT	%	ZENBAT	%
Deus ez	1.990	36,98	992	18,43	998	18,55
Zerbait	1.057	19,64	528	9,81	529	9,83
Ongi	2.333	43,36	1.171	21,76	1.162	21,59
GUZTIRA	5.380	100,00	2.691	100,00	2.689	49,98

EUSKARA IDATZIAREN EGOERA

EZAGUERA	OSORA		GIZONEZKOAK		EMAKUMEZKOAK	
	ZENBAT	%	ZENBAT	%	ZENBAT	%
Deus ez	3.029	56,30	1.522	28,28	1.507	28,01
Zerbait	1.017	18,90	502	9,33	515	9,57
Ongi	1.334	24,79	667	12,39	667	12,39
GUZTIRA	5.380	100,00	2.691	100,00	2.689	49,98

Euskararen egoera, beraz, ez zen asko aldatu 1.970-1.981eko hamarkadan. Populazioaren % 63-ak ezagutzen du euskara gutxi gora behera; haurtatik 1/3-ak ez daki ongi hitzegiten. Idazketaren aldetik, berriz, % 45-ak ez daki idazten euskaraz. Emakume eta gizonen artean ez dago alde handirik, bien proportzioak oso berdintsuak bait dira.

Bestalde, Euskadin jaiotakoen eta euskaraz hitzegiten dutenen artean erlazio estu bat nabari da. Ikus:

URTEA	EUSKADIN JAIOTAK	EUSKARAZ HITZEGITEN DUTE
1.970	% 68,81	% 61,60
1.981	% 73,57	% 63,00

Tamalez, xifrek hori dioten arren -euskara mantendu eta hazi egin dela zertxobait, alegia-, egitez geroz eta gutxiago entzuten ari da kaleetan gure hizkuntz hotsa. Eta esango genuke (pundu honetaz beste batetan ihardungo bagara ere), 12-50 urte bitarteko jendartean erdara dela nagusi.

Beraz, beste behin egia gertatzen da harako esaera hura: "hizkuntza bat ez dela galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakiteneek hitzegiten ez dutelako baizik" (J.A. Arze).

Euts diezaiogun, bada, euskarari eta bultzza dezagun gure artean.

J.L. APERRIBAY

- (1) JAKIN aldizkaria, 26-27 znb. 1.983ko urtarrila-ekaina
- (2) K. Etchezurieta IEZO HERRIAREN IKUSPEGI SOZIO-EKONOMIKO-HISTORIKOA.
Iezo. 1.984ko Maiatza (Argitara gabea)

